

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

**Jendaurrean jartzea KonpostAraba Vitoria-Gasteizko konposta egiteko instalazioa eraikitze**  
**kostuen egiturari buruzko azterlana, ekonomia eta finantza bideragarritasunaren azterlana eta**  
**oinarrizko aurreproiektuaren azterlana**

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak 2017-2030 aldirako Arabako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean programatutako jarduketa gauzatu nahi du. Plan horretan aurreikusita dago konposta egiteko instalazio bat jartzea Vitoria-Gasteizen, Arabako hondakinak kudeatzeko gaur egungo azpiegiturretan, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresiliენტzia Planaren barruan.

Lurraldean instalazio berri hori jartzeko, obra emakidako lizitazio bat egitea aurreikusi da, eta, horregatik, ekonomia eta finantza bideragarritasuneko azterlan bat eta oinarritzko aurreproiektu bat egin dira KonpostAraba Vitoria-Gasteizko konposta egiteko instalazioa eraikitze, Jundizko Mendebalderako hedapena S-21 industria sektorean.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 247. eta 248. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bi dokumentuak jendaurrean jarri behar dira hilabeteko (1) epean, interesdunei entzuteko eta egoki iritzitako erreklamazioak, alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Era berean, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren esparruan, 9. artikulua 8. apartatua kontuan hartuta, kontratazio organoak hogei (20) egunez sartu ahal izango du kostuen egiturari buruzko azterlana jendaurrean jartzeko nahitaezko izapidea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 247. artikulua 3. apartatua aurreikusitakoaren arabera.

Agiriak eskuragarri egongo dira aztertze, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia plaza 4, 3. ezkerre), Vitoria-Gasteizen; bai eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian ere ([www.araba.eus](http://www.araba.eus), bide izen honetan: <https://irekia.araba.eus/es/otras-actuaciones>).

Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta urriaren 1eko 39/2015 Legeko 14. artikuluan adierazitako beste subjektu batzuek bitarteko elektronikoen bidez jarri behar dute harremanetan administrazio publikoekin, prozedura administratibo bateko edozein izapide gauzatzeko. Horregatik, jendaurrean jartzeko izapide honetan subjektu horietako edozeinek egingadako alegazioak nahitaez bide elektronikoz aurkeztu behar dira. Gainerakoek euskarri fisikoan ere egin dezakete, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz), 30 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta Natura Ingurunearen Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 14a

*Natura Ingurunearen zuzendaria*  
**MARÍA JOSÉ MADEIRA GARCÍA**